

# BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

## BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA.  
HIRIGINTZA.

## ✓ **PROPOSAMENA**

BMX-puntrack zirkuitoa.

## ✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

BMX-puntrack zirkuitua, bizikletan, patinetan, mikropatinetan eta skatean erabilerarako kirol instalakuntza berriak dira. Erabilera askotarikoa eskaintzen duen zirkuituak dira. Zirkuituan zehar bihurtzeko eta obstakulu desberdinak daude. Bi urtetatik aurrerako haurrek era ludikoan erabil ditzakete, baina aldi berean, ikastaro nahiz trebatuen entrenamenduetarako egokiak ere badira.

Herriko gazteek jarduera fisikoa kalean egiteko baliabideak handitzeko aukera egokia litzateke BMX-puntrack zirkuitua.

Herrian ez dago horrelako baliabiderik eta natura ingurunean egiten diren aisialdi kirolen tendentzia berriek ekartzen dituzten onurak herrira ekartzeko aukera egokia da.

BMX-puntrack zirkuitua egiteko behar diren azalera ezberdinak izan daitezke oso, 300 m<sup>2</sup> azalera duen partzela behar dutenetik hasita 4.000 m<sup>2</sup>ko partzela edo gehiagokoa behar dutenak arteko esparrua irekitzen baita.

Gauza bera gertatzen da pista akaberari dagokionez, (lurra edo asfaltoa). Akabera aukeratzeko unean bakoitzaren alde positibo eta negatiboak kontuan hartu beharko dira. Honen baitan aukerak bai tamaina aldetik eta bai akaberaren aldetik ezberdinak izan daitezke eta horien arabera exekuzio kostuak baita ere.

Kokapenari dagokionez, behar-beharrezkoa izango da aurretik azalera definitzea. Lehen azterketa bat egin ostean, ikusi da 2000m<sup>2</sup>tako azalera duen BMX-puntrack zirkuitua bat kokatzeko eremu publiko ezberdinak egon daitezkeela Hernanin eta horietakoren bat hirigintza garapen berri bati lotuta dago. Sta. Barbarako harrobiaren kokapena horietako aukera bat izan daiteke, besteak beste. Nolanahi ere, eremu honi emango zaion erabileraren inguruan partaidetza prozesua abian da eta bertan hausnartu daitezkeen gaia da.

Lehenengo eta behin, Hernanin egon daitezkeen eremuak aztertu eta baikotzean sartuko litzatekeen pistaren azterketa egin beharko da.



## ✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

Hernanin BMX-puntrack zirkuitoa bat kokatzeko dauden eremu publikoen eta bertan sartuko litzatekeen zirkuitu edo pistaren azterketa egiteko eta horren aurreproiektu bat idaztea 8.000 € izan daiteke.

Egindako proiektuak egokitzat ematen bada BMX-puntrack zirkuitoa egiteko leku egokia dagoela Hernanin, prozesu parte hartzailea egitea proposatzen da kokaleku zehatzarekin, 10.000€.

Eta azkenik prozesu parte-hartzailean honartua eta bozkatua bada, BMX-puntrack zirkuitoa eraikitzea, zirkuitoaren azaleraren arabera\*:

- <1000m<sup>2</sup> : 40.000€ -80.000€.
- 1000m<sup>2</sup>-3000m<sup>2</sup>: 80.000€-180.000€.

\*Eurl aldapa (Souraïde)-k emandako prezioen arabera.

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

6 hilabete azterketa eta aurreproiektua egiteko.

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

- ✓ Jarduera Fisikoa eta Kirola.
- ✓ Hirigintza.
- ✓ Herri lanak
- ✓ Kontratazioa

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Hernaniko eremu publikoen eta bertan sartuko litzatekeen zirkuitu edo pistaren azterketa egiteko eta horren aurreproiektua idaztea: Prozesuan aurrera.

